

FORU DEKRETUA, GAZTEEN ETA GAZTERIAREKIN LOTURA DUTEN ERAGILEEN PARTAIDETZARAKO ELKARRIZKETA EGITURATUA ARAUTZEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren 48. artikulua xedatzen du botere publikoek sustatuko dituztela gazteek garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturalean parte-hartze libre eta eraginkorra izateko kondizioak.

Nafarroako Foru Komunitateak gazteriari buruzko politikaren arloan duen eskumen eksklusiboa erabiliz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.18 artikulua hala esleiturik, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legea onetsi zen, helburua izanik Nafarroako Foru Komunitatean arautzea bai gazteriaren arloko politika berariazkoa bai gazteak hartzaile dituen zeharkako politika.

Foru Lege horren 3.2 artikulua adierazten du gazteen partaidetza izanen dela, besteak beste, gazteriaren arloko jardun publikoaren printzipio gidaria.

Bestalde, 8. artikulua xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gazteriaren arloko politikak garatzeko, kontsulta-prozesuak burutuko dituela gazteekin, eta elkarrizketa egituratua taxutuko duela Nafarroako Gazte Kontseiluarekin eta legez aitorturiko beste gazte erakunde batzuekin, garrantzitsutzat jotzen diren gaitan. Elkarrizketa egituratua erabiltzeko eskatuko da, orobat, Gazteria Planak egiterakoan, Foru Legearen 10.2.b) artikulua zehazten duen bezalaxe.

6.1.f) artikulua Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuari esleitzen dio arlo horretarako eskumena.

35.3 artikulua, berriz, xedatzen du Nafarroako Gazte Kontseilua izanen dela Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde esparruko gazteen entitateen eta gazteriaren ordezkari organo gorena, bai eta kasuan kasuko administrazioaren solaskide nagusia ere. Artikulu bereko 4. idatz-zatiak esleitzen dizkion eginkizunetatik, nabarmentzekoak dira, hemengo arloari loturik, jarduerak sustatuko dituela, ziurtatze aldera gazteek berdintasunez parte hartzen dutela haiengan eragina duten erabaki eta neurrietan, eta Administrazioaren eta gazteen arteko solaskidea izanen dela.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak diseinu berria ekarri dio Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde publikoen antolaketari, arautu egin baitu hartu-emanetarako modu berri bat, irekiagoa eta parte-hartzaileagoa, ezartzea herritarrekin, besteak beste gazteekin.

Legearen IV. tituluak herritarren parte-hartzea eta elkarlana arautzen ditu, eta bigarren kapituluak jasotzen du zein diren herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako tresnak, hots, Administrazio Publikoak erabiltzen dituen baliabideak bi aukera horiek gauzatzeko. Era berean, adierazten du aktiboki sustatuko dela gai publikoetan parte hartzeko eta laguntzeko datuen arabera zailtasun gehien izan duten gizarte sektoreen inplikazioa.

38. artikuluan, bestalde, arautzen du zein diren parte hartzeko eta elkarlanerako berariazko tresnak: kontsulta-foroak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak, beste arau batzuetan aurreikus daitezkeen baliabideak deusetan galarazi gabe.

Horiek horrela, Gazteriari buruzko Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa betez, eta xedea izanik erraztea gazteen parte-hartze aktiboa eta elkarlana, bai banakakoa bai taldekakoa, gazteriaren gaineko politika eta planak zehazteko, haien ekarpenak, eskaerak, kezkak, premiak eta itzaropenak prozesatzea ahalbidetzen duten tresnak erabiliz, Foru Dekretu honek elkarrizketa egituratua arautzen du bi kapitulutan bilduriko hamahiru artikuluren bidez eta bi azken xedapenen bidez.

I. kapituluak xedapen orokorrak bildu ditu, honako hauek definitzeko: xedea, gazteria arloan eskuduna den organoak planifikatzeko eta bultzatzeko duen eskumena, elkarrizketa egituratuaren definizioa, zer esparru duen, nola dagoen diseinaturik eta zein diren eragileak.

II. kapituluak aldez aurreko partaidetza-prozesua arautzen du, Gazteriaren politikak eta Planaren zirriborroa prestatzeko burutu beharrekoa.

III. kapituluak partaidetza-prozesu irekia arautzen du.

IV. kapituluak partaidetzaren gardentasuna, segimendua eta ebaluazioa arautu ditu.

Azken xedapenek kontseilari eskudunari ahalmena ematen diote Foru Dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Horiek horrela, Kultur, Kirol eta Gazteriako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluaren adostasunarekin, eta Nafarroako Gobernuak egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

Foru Dekretu honen xedea da elkarrizketa egituratua arautzea, helburua izanik gazteen parte-hartzea sustatzea gazteriaren gaineko politika eta planak zehazteko, dela gazteek zuzenean parte hartuz dela haiek batzen edo

ordezkatzen dituzten legez eraturiko entitateen bitartez, hala nola Nafarroako Gazte Kontseiluaren bidez.

2. artikulua. *Eskumena.*

Esleitutako ahalmen eta eskumenen ondorioz gazteriaren arloan eskumena duen organoa izanen da elkarrizketa egituratuaren prozesua planifikatu eta bultzatzeko arduraduna eta hark begiratuko du behar bezala garatzen dela.

Nafarroako Gazteriaren Behatokia, gazteriaren arloan eskumena duen organoari atxikitakoa, arduratuko da elkarrizketa egituratuaren prozesuaren kudeaketa administratiboaz.

3. artikulua. *Definizioa*

Foru Dekretu honen ondorioetarako, elkarrizketa egituratua da gazteek eta gazteriarekin lotura duten eragileen partaidetzarako tresna, parte har dezaten prestatzen eta garatzen Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak gazteriari buruz dituen politika publikoak, baita diseinatzen eta prestatzen ere Gazteriari buruzko Foru Legeak aipatzen dituen gazteria planak.

4. artikulua. *Eremuak*

1. Gazteriaren arloan eskumena duen organoak elkarrizketa egituratuaren prozesurako deia eginen du Gazteriari buruzko Foru Legea aldatzeko proiektuak abiarazi aurretik eta legeak aipatzen dituen gazteria planak prestatu baino lehen.

2. Gazteriaren arloan eskumena duen organoak aukera izanen du elkarrizketa egituratuaren prozesua sustatzeko beste zernahi programa, plan eta politika egin eta garatzeko, baita gazteendako garrantzitsuak diren gaiak lantzeko ere.

3. Foru Dekretu honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira presaz tramitatu edo onetsi beharrekoak direla erabakitzen den zernahi proiektu normatibo, plan eta programa; antolamenduzko, prozedurazko edo antzeko izaera huts-hutsa dutenak; eta, prestatzeko eta onesteko berariazko araudia izateagatik, jendaurrean egoteko edo informazioa emateko egintza edo tramiteak finkatuak dituztenak.

5. artikulua. *Iraupena*

Elkarrizketa egituratuaren prozesuak 10 hilabete iraunen du gehienez. Beste 5 hilabetez luzatzen ahalko da, gazteriaren arloan eskumena duen organoaren arduradunaren ebazpen bidez.

6. artikulua. Diseinua

Gazteriaren arloan eskuduna den organoak, herritarren partaidetzaren eta gobernu irekiaren alorrean eskuduna den organoarekin batera, iragartzen diren elkarrizketa egituratu guztietarako diseinua prestatuko du aldez aurretik, partaide kalitate-irizpideekin bat eginez. Prestatzen den proposamena Gazteriaren Departamentuarterko Batzordera eramanen da, azter dezan eta, hala behar bada, onets dezan.

Gazteriaren arloan eskuduna den organoak elkarrizketa egituratua aldez aurretik diseinatu dezan, ondoko artikuluetan agertzen diren eragileetako batzuegana jotzen ahalko da lehenik, aholku eske.

Elkarrizketa egituratu bakoitzaren behin betiko diseinua dokumentu batera bilduko da eta bertan honako informazio hau jasoko da, gutxienez ere: zer arau-esparru aplikatu den herritarren partaidetzaren arloan; gazteriaren arloan eskuduna den organoak parte-hartzaileekin hitzartu dituen helburu, eduki eta konpromisoak; parte hartzeko aukera izanen duten eragile publiko eta pribatu guzti-guztiak; eginen diren jardueren plangintza (zer jarduera, non eta noiz eginen den, etab.), eta zehaztu beharko da zein izanen diren informazio eta kontsulta jarduerak, zein izanen diren gaiak eztabaidatzeko eta zein partaideen erabakiak jorratzeko. Era berean, zehaztuko dira zein diren Dekretu honetako IV. kapituluaren aurreikusitako neurriak gardentasunerako, segimendurako eta ebaluaziorako.

7. artikulua. *Eragileen hautapena.*

Gazteriaren arloan eskumena duen organoak elkarrizketa egituratuaren parte hartzeko deia eginen die bai gazteei bai haiek batzen edo ordezkatzten dituzten erakundeei, hala nola Nafarroako Gazte Kontseiluari, baita gazteriarekin lotura duten beste eragile batzuei ere ekarpen garrantzitsua egin dezaketela uste bada landu beharreko gaiei begira, hala nola:

- a) Gazteendako informazio zerbitzuak eta gazteriaren etxeak.
- b) Toki entitateen gazteriaren arloko eta beste esparruetako zinegotziak eta teknikariak.
- c) Aisialdiko eskolak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, auzoko lantaldeak, liburutegien sare publikoa, sindikatuak eta enpresa-erakundeak. Instalazioaren memoria teknikoa.
- d) Ikastetxeak eta unibertsitateak.
- e) Gazteekin lan egiten duten erakundeak, partzuergo sektorialak, gazteriaren arloko profesionalak eta adituak eta gazteen gaietan interesa duten gainerako erakundeak.

II. KAPITULUA

Aldez aurreko partaidetza-prozesua Planaren zirriborroa prestatzeko

8. artikulua. *Mahai Teknikoen fasea.*

1. Gazteriaren arloan eskuduna den organoak proposaturik, lantaldeak eratuko dira honako kide hauekin: Gazteriaren Planarekin lotura duten Gobernuako Departamentuetako teknikariak, gazteak, gazteen ordezkariak diren erakundeak eta jorratu beharreko gaietako adituak. Saioen edo jardunaldien bidez egituratuko da lana.

2. Mahaien helburua izanen da egoeraren diagnostikoa eta proposamen teknikoak egitea (erdietsi nahi diren helburuak, proposatzen diren neurriak eta haiek garatzeko aurreikusten den aurrekontuaren aipamena) gaiarekin lotura zuzenena duen Gobernuako Departamenduak azter ditzan. Diagnostikoa eta proposamenak adin-tarteen arabera sailkatuko dira (14-17; 18-24 eta 25-30), arazo eta egoera ezberdinen arabera.

3. Mahai teknikoek informazioa osatzeko asmoz, Gazteriaren arloan eskuduna den organoak deitu ahal izango ditu gazte eta gazteriako agenteekiko aurre-kontsulta prozesu kualitatiboa. Ondoriozko informazioa mahai tekniko egokietan ikasiko da, aurretik izaten diren dokumentu kuantitatiboen osagarri gisa erabiltzeko.

4. Egiten diren elkarrizketa egituratu bakoitzean, gazteriaren arloan eskuduna den organoak erabaki du zer-nolako mahai tekniko behar diren.

9. artikulua. Gazteriaren Planaren zirriborroaren edo zero dokumentuaren onespina.

1. Mahai teknikoek perstatuturiko dokumentuak kasuan kasuko arloarekin zerikusia duten departamentuei aurkeztuko zaizkie, aztertu eta iritzia eman dezaten.

2. Proposamenak berraztertutakoan, Gazteriaren Departamentuarteko Batzordeari aurkeztuko zaskio, azter ditzan eta, hala behar bada, onets ditzan.

3. Onetsitako proposamen guztiek Gazteriaren Planaren zirriborrarako proposamena osatuko dute, zeina jendaurrean jarriko baita, kontsultagai eta aztergai.

4. Aipatu zirriborroaren eranskin batean, zehaztu dira zer erakundek eta pertsonak hartu duten parte Gazteriaren Planaren zirriborroa prestatze-lanetan.

III. KAPITULUA

Nola egingen den partaidetza-prozesu irekia

10. artikulua Kanpoko partaidetza-prozesuaren onespina eta hasiera.

Gazteriaren arloan eskumena duen organoak ebazpen bidez abiaraziko du kanpoko partaidetza-prozesua, arau horren aplikazio esparruan aurreikusitakoarekin bat, nahiz eta aparteko deialdiaren bidez ere abiarazten

ahalko den, hala egiteko arrazoiak daudenean gazteendako interes eta garrantzi bereziko gaitan.

Kanpoko partaidetza-prozesua abiarazten duen ebazpena Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da, eta erabiliko dira, orobat, unean uneko inguruabarren arabera egokienak diren bideak eta gazteen eta gazteriarekin lotura duten eragileen artean zabalkunderik handiena ahalbidetzen dutenak.

11. artikulua. Zabalkundea eta jendaurrean jartzea

Prozedura abiatutakoan, gazteriaren arloan eskuduna den organoak Gazteriaren Planaren zirriborroa edo Zero Dokumentua jarriko du partaidetza-prozesua diseinatzean identifikatu eta zehaztu diren eragileen eskura, hala dokumentu teknikoa nola dibulgaziozkoa eta baita aurreikusitako elkarrizketa egituratuaren diseinua biltzen duen agiria ere. Bi dokumentuak Gazteriaren Institutuaren web-orrian eta Gobernu Irekiaren atarian jarriko dira.

2.1. Eskualdean eskualdeko gazteen aniztasunak prozesu parte-hartzailean lekua izan dezan, eskualdeko foroak eginen dira, Nafarroako udalerrri guztien partaidetza sustatzeko haien bidez.

Era berean, gazteriaren arloan eskumena duen organoak eskualdeko gazteekin lotura duten eragileen parte-hartzea sustatuko du, hots, gazte elkarteena, gazteria arloko zinegotzigo eta teknikariena, ikastetxeena, osasun etxeena, oinarritzko gizarte zerbitzuena, eskualdearen garapenerako agentziena eta gazteena, oro har, baita gazteen arloan eskualdean antzematen diren gainerako eragileena ere.

2.2. Gazteriaren Planaren zirriborroari buruz galdetuko zaie foroei, eta akta idatziko da, bertan jasoz foroa nola garatu den eta zer emaitza lortu den.

13. artikulua. Foro Sektorialak

Mahai Tekniko bakoitzak foro sektorialak antolatuko ditu, toki entitateei, gazteen eta herritarren erakundeei eta herritar interesdunei zabalik izanen direnak, foro horietan sakon eztabaidatzeko Planaren zirriborroko edo zero dokumentua eduki zehatzak, kasuan kasuko mahaiarekin zerikusia duten.

Bilera guzti-guztien akta eginen da, eta Gazteriaren Institutuko web-orrian eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko dira.

14. artikulua. Eztabaidarako foroak

Mahai teknikoak, Gazteriaren Kontseiluaren eta Nafarroako Toki Entitateen ordezkari batzuen laguntzaz, erabakiko du zein izanen diren jendaurrean eztabaidagai jarri daitezkeen gaiak, bai konplexuak edo zeharkakoak direlako, bai interes handia pizten dutelako eta/edo haien gaineko iritziak eta interesak askotarikoak direlako. Gai horiek ez dute zertan aurreikusirik egon Gazteriaren Planaren zirriborroko edo zero dokumentua proposamenetan.

15. artikulua. Proposamenak aztertzea, erabakiak hartzea eta haien berri ematea Elkarrizketa Egituratueta parte hartu dutenei.

1. Elkarrizketa Egituratua egin bitartean aurkezten diren proposamenak eta/edo alegazioak (bertatik bertara eginak edo idatziz edo on line helarazitakoak), gazteriaren arloan eskumena duen organoak eginen duen txosten berariazko batera bilduko dira, eta bertan zehatz-mehatz adieraziko da zein entitatek eta pertsonak egin duen, zer bide erabili den, noiz aurkeztu den eta zein den edukia, ondoren mahai teknikoek, tartean dauden departamentuek eta, azkenik, Departamentuarterko Batzordeak iritzia eman dezan.

2. Harturiko erabakiak idatziz helaraziko zaizkie interesatu guztiei eta, horren osagarri, azken saio bat ere antolatuko da, elkarrizketa egituratuan parte hartu duten interesdun guztiendako zabalik, bertan aurkezteko, oro har, zer proposamen jaso diren, zer erabaki hartu diren eta zein diren Planaren zirriborroan egin diren aldaketak.

16. artikulua. Txostenak eta amaiera.

Gazteriaren arloan eskumena duen organoak ebazpen bidez emanen dio amaiera elkarrizketa egituratuaren prozesuari, eta ebazpen hori argitaratuko da prozesua abiarazteko baliaturiko bide berberak erabiliz.

Elkarrizketa egituratuaren prozesuari amaiera ematen dion ebazpenari gehituko zaio partaidetza eta lankidetzaren txosten ez lotesle bat, zeinean jasoko baita zein izan den elkarrizketaren emaitza, nork hartu duen parte eta zer bitarteko erabili diren.

IV. KAPITULUA

Partaidetzaren Gardentasuna, Segimendua eta Ebaluazioa

17. artikulua. Gardentasuna.

Gazteriaren arloan eskumena duen organoa arduratuko da, Nafarroako Gazteriaren Behatokiaren bitartez arduratu ere, elkarrizketa egituratuaren prozesuaren eta haren emaitzen gardentasuna bermatzeaz, bai plangintzaren faseari bai plana eta hari loturiko partaidetza-prozesua betearazteko, segimendua egiteko eta ebaluatzeko faseei dagokienez. Horretarako, partaidetzak dakartzan datuak eta txostenak argitaratu eginen dira bai gazteriaren arloan eskumena duen organoaren web-orrian bai Gobernu Irekiaren Atarian.

18. artikulua. Segimendua

Zirriborroan eta onesten den Gazteriaren Planaren azken dokumentuan zehaztu beharko da planaren segimendua egiteko eta plana betearazteko fasean herritarren partaidetza bermatzeko proposamena, behar diren hobekuntzak sartu ahal izanzen direla ziurtatuz.

19. artikulua. Ebaluazioa

1. Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa, elkarrizketa egituratuaren Gazteriaren Planaren plangintza eta onespen fasean
Gazteriaren arloan eskumena duen organoak, Nafarroako Gazteriaren Behatokiaren bitartez, ezarriko du zein diren behar diren mekanismoak elkarrizketa egituratuaren prozesuaren garapena eta kudeaketa ebaluatzeko Gazteriaren Planaren plangintza eta onespen fasean.

2. Planaren eta partaidetza-prozesuaren betearazpenaren ebaluazioa.

Era berean, behar diren mekanismoak ezarriko dira Planaren eta elkarrizketa egituratuaren prozesuaren azken ebaluazioa egiteko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. *Lehena.-Garatzeko eta betearazteko gaikuntza.*

Ahalmena ematen zaio gazteriaren arloan eskumena duen kontseilariari foru dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan eta arloan eskumena duen organoaren titularri, berriz, aplikatzeko behar diren ekintzak onartu eta agindu ditzan, lortu beharreko helburuari begira.

Azken xedapenetan bigarrena. *Indarra hartzea.*

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.